

{ koaderno } **Joana Garmendia**

# Lehenengoa

**Z**ail egin zait nire “koadernoko” lehenengo orrialde hau idazteko gaia aukeratzea. Bazirudien, nolabait, hemendik aurrera hilean behin idatziko ditudan sartu behar nituela arrastoan: bidea erabaki, noranzkoa pentsatu eta, bereziki, pausoaren erritmoa ezarri. Gaur hemen hasitakoak marraztuko diela bidea hurrengo guztiei.

Lagun batek eman dit gomendioa: idatz dezakedala naizenetik, edo idatz dezakedala dakidanetik, egiten dudanetik. Batzuek direnari buruz idazten dutela eta besteek, aldiz, egiten duten horri buruz. Ez dit asko lagundu.

Emakumea, euskalduna, 39 urte, anoetarra –hori izango da naizena–. Ikerketa, irakaskuntza, hizkuntzaren filosofia, ironia, komunikazioa –hori egiten dudana–. Ez dakit, ordea, nola bereizi biak. Ez dakit nola idatzi emakume izateari buruz, euskaldun izateari buruz, ez bada hizkuntzaren azterketatik, filosofia-aren argudio-eraikuntzatik, ikerketak bere duen azterketa moldetik. Eta ez dakit irakaskuntza eta akademia berdina biziko nituzkeen gizona bera, hizkuntza gutxitu bat hitz egingo ez banu, gazteagoa edo zaharagoa banintz. Esango nuke, ironia aztertzean ere, teoriaren maila lehorrean ari izanagatik, ohar daitekeela inor zein naizen –aztergai aukeratzen ditudan adibideetan, besterik ez bada–.

Lankidea ere saiatu da aholku ematen: azti ibiltzeko “koaderno” honetako lehenengo orrialdean zer esaten dudana eta, bereziki, zer ez dudana esaten. Izan ere, muga horretantxe aritzen gara ikerketan lankidea eta biok: esaten denaren eta esan gabe komunikatzen denaren arteko mugan. Izatez, esaten duguna baino gehiago komunikatzen baitugu, ia beti. Eta, ulertu, esaten zaiguna baino gehiago ulertzen dugu, ia beti.

Txiki-txikitatik ikasten dugu hori. Amak gauean berandu dela esandakoan, badakigu lotara bidali nahi gaituela. Goizean berandu dela esaten digunean, be-

rriz, ulertzen diogu korrika txikian joan behar dugula ikastolara, bizkor batean abiatu behar dugula. Gaztetan, etxera iristean, berandu dela esan izan digunean, asmatu dugu errietan ari zitzagula. Horiek denak ulertu dizkiogu, baina, esan, gauza bakarra esan digu beti amak: berandu dela.

Horrela ulertzen dugu elkar: esan gabe komunikatzen dugu adierazi nahi dugunetik asko. Hizkuntzaren erabilerarik arrunt eta sinpleenetan gertatzen da hori, eta zer esanik ez hizkuntza figuratiboki erabiltzen dugunean; metaforak edo ironia erabiltzen ditugunean, adibidez. Heriotzaz hitz egingo digu idazleak berandu dela esanda, edo etsitzeaz, edo porrotaz, edo nork daki zer ez den ezkututzen poetaren metaforen itzalean. Lagun ironikoak iseka egingo digu, guk, beti bezala, ordubete garaiz eraman dugulako tren-geltokira, ba-

Esan gabe komunikatzen dugu adierazi nahi dugunetik asko. Hizkuntzaren erabilerarik arrunt eta sinpleenetan gertatzen da hori, eta zer esanik ez hizkuntza figuratiboki erabiltzen dugunean

daezpada. Bidean behin eta berriz esan diogun bezala errepikatuko digu berak, burlati: «Berandu da, berandu da!».

Azkeneko aholkua anaiak eman dit: ba omen da nonbait euskal zutabegileen topikoen zerrenda bat, eta han esaten omen da lehen zutabea, “koadernoko” lehen orria, beti izaten dela nork bere burua aurkezteko, eta denek, den-denek, idazten dutela egiten duten horrek denentzat interesa eta garrantzia izan behar balu bezala. Ez erortzeko ni ere topikoetan, ez egiteko horrelakorik nik. Ba, hara, esan ziezadakeen lehenago. Dagoeneko alferrik: berandu da.

Ez diot hiruretatik inori jaramonik egin; hori, gehientsuena bezala, esan gabe doa. •



Ruben Sanchez Bakaikoa, Gasteizko Alde Zaharrean. Endika PORTILLO | FOKU

# infraganti RUBEN SANCHEZ BAKAIKOA

Duela 43 urte sortu zen mundura 22 urteko euskaldun hau. Ezagun samarra da bertso munduan, bertsolaritza bere pasioa ez den arren, eta haurrei irakasten jarraitzen du. Paperean barrenak husten badaki, etorkinen eta euskararen arteko zubiak eraikitzen ditu, ikus-entzunezko lantxoren bat egin du, Konpost musika (post) taldeko abeslaria da...

**B**ertsolari ezaguna da Araban eta Arabatik kanpo, baina bertsolaritza ez da haren jardun bakarra, ezta hurrik eman ere. Lumarekin ere trebea dela

erakutsi izan du; urrunera gabe, GAUR8ko irakurleek badute Ruben Sanchez Bakaikoak orrialdeotan idatzitako zutabeen berri. 2004an Arabako bertsolaritzaren historia bat egiteko ardura ere hartu zuen, "Araba, bertso histori ezberdin

bat". Berak dioenez, «istoriotxoekin egindako historia bat» da. Halaber, amaituta dauka bestelari potoloago eta literarioago bat, eleberri bat, baina nahiago du horretaz gehiegi ez hitz egin. «Suerte txarra ematen omen du argitaratu gabe dagoenean!», dio irribarrez.

## BERTSOLARITZA

Euskara irakaslea ere izan da urte askoan, baina irakaskuntzan baino lehentxoago bertso-tan hasi zen. 90eko hamarkadaren amaieran, Gasteizko Bertso Eskolaren kartel bat ikusi zuen eta Filologiako fakultateko lagun batzuekin talde bat eratu zuen. Gustukoa zuen bertsoa; «gaztelaniaz ere hitzekin jolastea gustukoa nuen», dio. Eta Asier Iriondo legazpiarra irakasle zuela, errimen neurrien eta doinuen munduan murgildu zen. San Prudentzio Sariketaren eta Arabako Bertsolari Txapelketaren hainbat ediziotan parte hartu zuen –azken aldiz, 2015ekoan–, baita 2001eko Txapelketa Nagusian eta plaza saio ugarian ere.

«Kasualitate» batengatik, monologoak egiten hasi zen. Gaztetxean festa bat antolatu zuten eta, zerbait desberdina egitearren, AEK-ko beste irakasle batek, Rakel Anituak, eta berak monologo bana prestatu zuten. Rakelek irakasle papere-tik hitz egiten zuen eta Rubenek ikaslearenetik. Gaztetxeko festa horretarako propio prestatu zituzten monologoak, eta badirudi jendeari gustatu egin zitzaiola ikusitakoa, berehala batetik eta bestetik deitzen hasi baitzitzaizkien, eta ez Arabatik soilik.

Monologoak jendeak euskara ikas zezan motibatze-ko egin zituen. Haren mezua hau-ze zen, gutxi gorabehera eta umore finez kontatuta: «Gasteizkoak gara, arabarrak gara,

Euskal Herriko itsusienak, baina lortu ahal da». Bigarren monologoa militantziaren gainekoa zen, «norbaitek kafe bat hartzeko deitzen dizunean...».

Jardun horretan ia bertsotan bezala gertatu zitzaiola dio Rubenek, bertsotan ere ondo pasatzeko hasi baitzen, «besterik gabe». Egun batean kantatzeko esan zioten eta, «konturatu gabe», bertsolaria zen. Orain, dioenez, oso gutxitan kantatzen du eta «herdoilduta» dago. «Asko gustatzen zait, baina ez da nire pasioa». Monologoak ere ez. Gainera, euskara irakaskuntzaz gainera, ez zuen zeregin faltarik. Edonola ere, Alde Zaharreko bertso eskolan segitzen du, umeei irakasten, «interesatzen zaidalako jendea euskarara eta kulturara erakartzea». Hori bai, lagun artean kantatzea du gogokoen. Dioenez, plazera da, baina ez dauka urtean hainbeste aldiz hainbat lekutara joateko kemenik, eta batzuetan gogorik ere ez.

Euskaldundu zenean hasi zen Ruben Gasteiz benetan ezagutzen, bertako bizitza, arazoak... Euskara izan zuen mundu horietan sartzeko bide. Eta sartzten hasi bazen, hasi zen: bertso eskolan, Hala Bedi irratian, AEKn, Askapenan... Horrek guztiak lehendik erakartzen zuen, ezagutu gabe, «eta ezagututa, are gehiago». Gainera, dioenez, parrandero samarra ere bazen. «Orain, gutxiago».

## «22 URTEKO EUSKALDUNA»

A ereduko apaiz eskola kontzertatu batean ikasi zuen. «Etxean ez zen euskaraz hitz egiten. Amaren familia nafarra da, 50eko hamarkadan Gasteizera etorritakoa; euskara galduta zuten ordurako. Aita zena, berriz, Soriakoa zen», azaldu du. Batxilergo Bateratu Balioaniztuna egiten ari zela, latin irakasle batek ikasleei esan



Ruben Sanchez Bakaikoa Landatxon, atzean Gasteizko gaztetxea duela. Endika PORTILLO | FOKU

zien latina ikastea euskara ikastea baino garrantzitsuagoa dela. 16 urte inguru zituen Rubenek, eta euskara apaiz eskolari aurre egiteko bitarteko gisa identifikatu zuela dio. Eta ikasten hasi zen, eta barnetegietara joaten. 18 urterekin Oñatira joan zen, enpresa ikasketak egitera. Han, euskaraz egiten zuenarekin euskaraz egiteko motibatu zen, ordura arte kalean ez baitzuen euskara erabiltzen. Pisuan, berarekin eta beste bi lagunekin, Azpeitiko lagun bat zegoen eta hura gaztelaniaz egitera «behartu» zuten. Karrerako azken urtean, Rubenek euskaraz egiteko eskatu zion azpeitiarrari. Hark esan zion: «Lehenengo erdaraz eta orain batuaz eginarazi behar didazu?». Euskaraz egiteko esan zion, baina berak erdaraz erantzungo ziola, eta hala hasi ziren, laster batean biek euskaraz egingo bazuten ere.

Ondoren lanean hasi zen, Fagorren, baina enpresa mundua ez zuela begiko konturatu eta Euskal Filologia ikasteari ekin zion, 22 urterekin. Karrerako hirugarren ikasturtean irakasle sartu zen AEKn. Erdaraz 43 urte ditu; euskaraz, berriz, 22. Bere ustez, euskalduna da euskaraz normalean hitz egiten hasi zenetik.

**ETORKINEKIN**

Orain auzoko proiektu bat du esku artean, etorkin heldu berrien hizkuntzen eta kulturen eta euskararen arteko zubia eraikitzeko proiektua, hain zuzen. Topagune bat dela dio, hainbat herritan egiten dena eta Gastei-

**Amaituta dauka beste lan potoloago eta literarioago bat, eleberri bat, baina nahiago du horretaz gehiegi ez hitz egin: «Suerte txarra ematen omen du argitaratu gabe dagoenean!»**

**16 urte zituela, irakasle batek esan zion latina ikastea euskara ikastea baino garrantzitsuagoa dela, eta euskara apaiz eskolari aurre egiteko bitarteko gisa identifikatu zuen Rubenek**

zen azken urteetan egiten hasi direna. Gauza konplikatu samarra dela dio. Mintzalagun talde baten formatua daukan zerbait da, euskara dakiten pare bat edo hiru pertsona eta ez dakiten zazpi edo zortzi. Arike-

ta komunikatiboak egiten dituzte: izena, jatorria, jolasak... euskaraz, eta, gero, heldu berriei dakartenari erreparatu. Zenbakiak ikasten dituztenean, haien hizkuntzan esateko eska-

tzen diete. Horrela denek ikasten dituzte hizkuntza eta kultura horietako gauzak. Euskaraz errezetak ikasten dituzte eta bide batez produktuen eta plate-

ren izenak beste hizkuntzetan. Taldeko figurak ez ditu jatorriak izendatzen, ez dago kanpoko eta bertokorik, euskara dakitenak eta ez dakitenak baizik. Zehatzago, euskara erabiltzen dutenak, baita oso maila altua ez dutenak ere, eta euskararen ingurura hurbildu berri direnak. Inportanteena da «jolas hori baliatzea: «Guk lagun horien kulturak eta hizkuntzak pixka bat ezagutzea eta eurek gugandik euskara jasotzea. Elkarrenganako hurbilketa da».

Etorkinek eta edonork gaztelania ikastea erraztasunak aipatu ditu Rubenek, doakotasuna alegia, eta euskara ikastea zailtasunak, baita horretarako laguntza jasotzeko ere. Legegingintzaldi honetan badirudi helduentzako laguntzak onartuko direla, eta aurrerapausoa dela dio, baina doakoa izan beharko lukeela, ez diruz lagundutakoa. Bestalde, «ez da normala oraindik ere Gasteizen A eredua duten hiru eskola etorkinen seme-alabekin beteta egotea».

Gizarte presioa hizpide, pentsiodunen olatuaz dihardu, eta pozik ageri da Ruben, hartu duen dimentsioa ikusita. Irakaskuntzan, ordea, zail ikusten du horrelako olatua sortzea. Kuota pagatzen duten ikasleak EAEn gutxi gorabehera erdiak dira, eta beste erdiak hezkuntza publikora joaten dira. Kuota ordaintzen duenari publikakazioa eskatzea oso zaila dela uste du. «Lehen faktore sozioekonomikoa zegoen, banaketa sozioekonomikoa, alegia. Orain, etorkinak etorri eta patio batzuk guztiz segregatu direnean, arrazakeria faktorea ere badago». Rubenek Gasteizko Alde Zaharreko ikastetxe publikoan ditu bi semeak. «Seguruenik Estatu osoan guztiz segregatuta egotetik oreka bat lortzera iritsi den eskola bakarra da. Ez dut uste hori beste


inon gertatu denik». Baldintza batzuk bete ziren horretarako: giro aproposa auzo berezi batean, guraso inplikatuak, baita auzoa bera ere. Baina badaude guraso elkarteak bera desagertzen ari den hainbat eskola, maila sozial altuko gurasoak baino ez daudelako haietan. Eta bost urte barru segregazioa erabatekoa izango dela dio. «Parisen, Belgikan eta beste leku batzuetan gertatu bezala gertatuko da, ghettoak sortuko dira. Hemen oso azkar goaz horrantz». Ezkorra da.

Orain militantzia guraso elkarteetan eta eskola publikoaren aldeko plataforman kontzentratzen du batik bat, baina kontu gehiagotan ere aritzen da; esate baterako, Etxerat elkartearekin antzerki jardunaldi batzuk prestatzen ari da, eta Okupatu Gasteizentzat monologo bat egin berri du.

**ZINEMA ETA MUSIKA**

Ikus-entzunezkoen munduak ere erakarrita, marrazki bizidunak egiten hasi zen. “The Arlotes” hamar ataleko saila osatu zuen Uraitz Soubies musikariarekin. Eta harekin film labur bat ere egin zuen, “Hartz txiki”. «Bi semeekin zerbait egiteko gogoan nuen», eta, hala, 2016an film labur hori egin zuen familiarekin eta zenbait lagunekin.

Bertso doinuak ez dira Rubenek musikarekin duen harreman bakarra. Azkenaldion Konpost taldean dabil abeslari. Talde berria da, post taldea edo, eurek definitzen dutenez, post rock taldea, «post sasoi honetako. Dena da post», dio barrez. Oraingoz bi kontzertu baino ez dituzte eman. Lehenengoa Zaharraz Harro Gasteizko Alde Zaharreko jaietan, eta bigarrena, iragan uztailaren 6an, Zumaian, “Kalea guztiona da” ekimenaren barruan, Erriberako



Goian, «The Arlotes» sailaren fotograma bat. Behean, Konpost taldearen azken kontzertuaren kartela. GAUR8

**Rubenekin batera, Jon Aranburu gitarra jotzaileak, Bingen Mendizabal biolin jotzaileak eta Txerra Bolinaga bateria jotzaileak osatzen dute Konpost «post rock taldea»**

horman 81. murla marrazten zuten bitartean. Ezin esan, ordea, musikari hasiberriak direnik, ezta ezezagunak ere. Rubenekin batera, eta lagun giroan, Jon Aranburu Stockholm S. taldeko gitarra jotzaileak, Bingen Mendizabal konpositore eta Hertzainak taldeko biolin jo-

tzaile ohiak eta Txerra Bolinaga RIP taldeko bateria jotzaile ohiak osatzen dute laukotea. Bizkor joan da denbora, momentu onen arintasunarekin. Aurrerantzean ere zer kontatua izango du Rubenek. •

Xabier Izaga Gonzalez



Endika PORTILLO | FOKU

## IKUSMIRA

# LANA, HIL EDO BIZIKO KONTUA

Asteon bi langile hil dira Gasteizen. Aurtengo zortzi hilotan berrogeitik gora Euskal Herrian. Lanaren definizio ugari eta haren gaineko askotariko iritziak daude, baina ez dirudi eztabaidagarria arriskugarria dela. Hildako bakoitza zaplazteko latza da haren familiarentzat, lankideentzat, langile guztientzat, gizartearentzat. Izan beharko luke. Horiek dira, ondorioengatik, lan istripurik larrienak, erabatekoak, baina haien artean larritasun handi edo txikiko beste ehunka istripu gertatzen dira, lanaren izaera arriskugarria egiaztatzen dutenak. Sarritan, maiztasun ikaragarritz. Zergatik gertatzen dira eta zergatik horren maiz? Kasualitate hutsak dira lan istripu guztiak? Saihetsezinak dira? Ezagunak dira hiru galderon erantzunak, eta horiek jakinda, etsigarria da kopuru beltza handitzen ikustea. Hitzak agortu egiten dira, errepikatu beharra daukagu, baina, etsi beharrean, gogoz eta indarrez aurre egin behar zaio auziari, hil ala biziko kontua da-eta. Xabier Izaga Gonzalez

# BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



NICOLAS ARDANAZ. NAFARROAKO MUSEOA

## BAZTAN, ARDANAZEN BEGIAN

Artikulua ilustratzen duen argazkia, 1962an Baztanen egina, ez da kasualitatez ateratakoa. Haren egile Nicolas Ardanaz (Iruñea, 1910-1982) irudi estereotipatuak eraikitzen aha-  
legintzen zen, estetika klasiko jakin bat jarraituz: piktorialismoa. Ez da harritzekoa, besteak beste, Javier Ciga izan baitzuen maisu. Argazkigintzan jardun zuen ia 40 urteetan, Ar-  
danazek denetarikoa argazkiak egin zituen 6x6 zentimetroko bere kamerarekin: erreketek gisa boluntario aritu zen gerra zibileko irudiak, sanferminak, paisaiak, Iruñeko irudiak, erre-  
tratuak, natura hilak... Bere lagunen artean antzeko joera piktorikoen eragina zuten argazkilariak zeuden, hala nola Miguel Goicoechea altsasuarra eta Pedro Maria Irurzun  
iruindarra. 1955ean, beste amateur eta profesional batzuekin batera, Nafarroako Argazki eta Zinematografia Elkartearen sorreran parte hartu zuen.